

Aldez aurreko salmenta: helmugan txarteldegia izanik jatorrian ez duten lineetan ZERO

BIDAIA-TXARTELA eskuratzeko protokoloa.

DO04, DO03, DG01, DG02, DG05, DG05A, DG05D eta DG07 lineetan plaza aldez aurretik erreserbatu nahi duten 15 urtetik beherakoek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak jaulkitako mendekotasun-txartela duen pertsonaren laguntzaileek, baldin eta jatorriko herrian ez baina helmugan txarteldegia badute, bidaia-txartel arrunta erosi beharko dute aldez aurretik web-orriaren edo TGR terminalaren (salmenta-makina automatikoa) bitartez. Jatorrian txarteldegia daukaten bidaietan, txarteldegian erosiko da bidaia-txartela.

DG12 linean, bidaia-txartelak zuzenean eskuratu ahal izango dira ibilgailuan bertan.

Web-orriaren edo TGR terminalaren bitartez aldez aurretik erositako bidaia-txartel arrunt horren zenbatekoa gero itzuliko da, honako prozedura honi jarraikiz:

Autobusean sartzea:

- **15 urtetik beherakoa:** pertsona heldu arduradunak erositako bidaia-txartel arrunta eta 6 urtetik beherakoaren adinaren egiaztagiria aurkeztuko ditu. 6 eta 15 urte bitarteko adingabeek, heldu batekin doazenean izan ezik, Mugi, Barik edo Bat txartel pertsonalizatua aurkeztu beharko dute. Agiri horiek egiaztatu ondoren, autobus-gidariak 0 €-ko bidaia-txartel bat emango dio.
- **Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak jaulkitako mendekotasun-txartela duen pertsonaren laguntzailea, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean:** autobus-gidariak 0 €-ko bidaia-txartel bat emango dio.
- **Helmugako autobus-geltokian:** iristean, edo geroago, inprimaki bat bete eta txarteldegian bertan entregatuko dute jatorrizko bi bidaia-txartelekin batera —bidaia-txartel arrunta eta 0 €-ko bidaia-txartela—. Inprimakia geltokiko txarteldegian bertan edo gure web-orrian eskuratu dute.
- **Posta arruntaren bidez:** inprimakia gure web-orrian eskuratu ahal izango da, eta eskatutako datu eta dokumentu guztiekin batera bidali honako helbide honetara:

Avanza Donostiako txarteldegia

Federico Garcia Lorca pasealekua 1, 20014 Donostia

- **Itzulketa tramitatzeko behar diren datuak:** izen-abizenak, harremanetarako telefonoa edo helbide-elektronikoa, bidaia-txartel arrunta ordaintzeko erabilitako txartelaren zenbakia (kreditu-txartela edo Mugi txartela).
- **Itzulketa:** ordaintzeko moduaren arabera egingo da, erabilitako kreditu-txartel berean edo Mugiri itzulketaren datuak igorrita.

DO01 eta DO02 LINEAK

Linea horietan, jatorria dena dela ere, erabiltzaileek Bezeroentzako Arreta Zerbitzura deituko dute, bai Avanzaren zerbitzura (900 121 400) bai Lurraldebusen zerbitzura (900 300 340), eta honako datu hauek zehaztuko dituzte: eguna, linea, ibilbidea, erabili beharreko bidaldia, bidaia-txartela zer autobus-geltokitan jasoko duten eta erreserba egiten duen pertsonaren izen-abizenak.

Bidaia-txartelak erretiratu ahal izateko, doako bidaia-txartela lortzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Bidaia-txartelak erabiltzaileek adierazi duten autobus-geltokiko txarteldegian egongo dira eskuragarri, autobusaren irteera-ordua baino 15 minutu lehenago arte. Irteera aurreko 15 minutuetan jasotzen ez badituzte, doako bidaia-txartelak balio gabetu egingo dira eta dagozkien plazak salgai jarriko dira. Bidaia-txartelak erabilgarri dauden hiru txarteldegietako edozeinetan erretiratu ahal izango dira (Donostiako, Bilboko eta Gasteizko autobus-geltokiak). Egin beharreko ibilbidearen jatorria Zarautz bada, bidaia-txartelak egin beharreko bidaldiari esleitutako autobus-gidariari entregatuko zaizkio, gero berak bidaia-txartel horiek eskatu dituzten erabiltzaileei entregatu diezazkien.

**ALDEZ AURREKO SALMENTA: HELMUGAN TXARTELDEGIA IZANIK JATORRIAN EZ DUTEN
IBILBIDEETAN BIDAIA-TXARTEL ARRUNTAREN ZENBATEKOA ITZULTZEKO ESKABIDEA ***

**15 urtetik beherakoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak
jaulkitako mendekotasun-txartela duen pertsonaren laguntzaileak**

_____ jauna/andrea

Telefonoa edo helbide elektronikoa: _____

Kreditu-txartelaren zenbakia: _____

Mugi txartelaren zenbakia: _____

GARRANTZITSUA: Eskabidearekin batera aurkeztu behar dira erositako bidaia-txartel arrunta eta autobus-gidariak emandako 0 €-ko bidaia-txartela, jatorrizkoak biak, eta txarteldegian entregatu edo posta arruntaren bidez bidali honako helbide honetara:

Avanza Donostiako txarteldegia

Federico García Lorca pasalekua, 1, 20014 Donostia

OHARRA: Itzulketa eskatzeko epea hilabetekoa da, bidaia egiten denetik aurrera.

_____ (e)n, 202_(e)ko _____ aren ___(e)(a)n

- 15 urtetik beherakoentzako eta laguntzaileentzako bidaia-txartelak txarteldegian eskuratu behar dira D001 eta D002 lineetan, eta ibilgailuan bertan DG12 linean.

Hemen kontsultatu dezakezu datuak babesteko gure politika: <https://gipuzkoa.avanzagrupo.com/eu/politica-de-privacidad>.